

GERO GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

Biztanlegoaren
kopurua Gasteizen




ERNESTO VALVERDE eta CARLOS MARTINEZ AURREZ AURRE

UKIPEN LENTEAK
ZURETZAKO PREST
Urtebeteko garantiarekin
ordezkapenak % 50 etan



MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO

Andre Maria Plaza - Olagibel, 33
(anbulategi aurrean)
GASTEIZ



Euskara gure kulturaren oinarria da.
Horrexegatik egunez egun aurrera
goaz euskara arabar guztion
hizkuntza izan dadin.



DIPUTACION
FORAL DE ALAVA

ARABAKO
FORU ALDUNDIA

DPTO. DE PRESIDENCIA

LEHENDAKARITZA SAILA



Gure eskerronik beroena
eskaini nahi dizuegu,
dagoeneko gauzatua ikusten
duzuen proiektu eta ekimen
honi laguntza eman diozuen
guztiori. Laguntzaile, iragarle eta
irakurle guzti-guztiori. Zuei esker
hilabetero milaka euskaldun eta
euskaltzaleengana heltzeko
aukera izan dugu.

GU GASTEIZ

denona eta denontzat baita

GEU Gasteiz

Gasteizko Euskaldunon
Aldizkaria

1691 Postakutxa

GASTEIZ

Zuzendaria

Joseba Gorostiza

Erredakzio-batzordea

Iñigo Barruso

Xabier Etxaniz

Mikel Garmendia

Txema Millan

Patxi Salaberri

Kazetariak

Leire Lopez de Aberasturi

Inaxio Lopez de Arana

Ismael Diaz de Mendivil

Olatz Irizar

Publizitatea

Martin Rezola

Maketazioa

Blanka Agiriano

Alex Badillo

Argazkilariak

Lukas Etxeberria

Joseba Olalde

David Aguilar

Joseba Unzu

Kolaboretzaileak

Agurne Aizpitarte

Asier Garro

Txipi Ormaetxea

EUSKARA -GASTEIZ.

Geroa Elkarrekin Lantzen

taldearen babesarekin

5.000 Aleko Tirada

Lege-Gordailua

VI-582/92

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati)

GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen
betan adierazitako erantzunkizunik

Idazleak Arabako ikastetxeetara ere bai

«Idazleak Ikastetxeetara» izeneko programa duela hiru bat urte martxan jarri zenetik, ikasketa maila guztietako milaka ikaslek izan dute idazleren bat pertsonalki ezagutzeko eta berarekin mintzatzeko parada. Hasiera-hasieran Donostiako ikastetxeek bakarrik izan zuten horretarako aukera; geroago —aurten—, Gipuzkoa osora zabaldu da programa, eta espero dezagun aurrerantzean, eta aurreko esperientzien arrakasta ikusirik, programa hori Euskal Herriko ikastetxe guztietara zabaltzea.

Idea sinplea izanagatik, urte askotako umotze prozesua eta Euskal Idazleen Elkarteko pertsona batzuen etengabeko ekina behar izan dira gauzatu ahal izateko. Prozedura zera da: ikastetxe batean idazle jakin batzuk hautatu eta horien obra batzuk irakurtzen dituzte, maila bakoitzari dagokion zailtasuneko; gero, egun batez delako idazleak bisita egiten die eta saio batean zehar ikasleek irakurritako obrari buruz zein idaztearen lanari buruz eta beste galdetzeko aukera izaten dute, era horretan ikasleen irakurzaletasuna bultzatuz.

Programa horren haritik, antzeko saio batzuk egina naiz Gasteizko ikastetxe batzuetan, noiz nire idazlanak noiz nire itzulpenak komentatzeko helburuz, eta esperientzia oso positiboa izan da niretzat eta ikasleentzat ere bai: liburu irakurtzetik galderak prestatzera, liburu konturen lanketa eta idazlearen presentzia fisikoa ahaztu gabe, ekintza guzti horiek hizkuntza eta literaturaren arloan motibatuzko tresna ezinhobeak dira. Gainera, ohizko eskolen eritmoan eten bat suposatzen du, giro erlajatu egokia sortzen delarik. Zoritxarrez, Gasteizko saio horiek irakasle saiatu batzuen ekimen pertsonalen ondorio izan dira, eta ez programa sistematizatu baten emaitza.

Gipuzkoan egiten ari den bezala, «Idazleak Ikastetxeetan» programa Euskal Herri osora zabaldu egin beharko litzateke, dagokion Erakundeekin akordioak sinatuz, Eusko Jaurlaritza dela, Nafarroako Gobernua dela, Iparraldeko Erakundeak direla, euskal ikasle guztiak, Lehen Hezkuntzatik hasita Unibertsitateraino, euskal literaturaren errealitatea hurbilagoz ezagutzeko aukera izan dezaten.

Eta gureari dagokionez, premiazkoa litzateke Arabako Diputazioarekin, edo tokian tokiko udalekin akordioak lortzea euskal idazleak Arabako ikastetxeetara lehenbailehen hurreratzeko.

Manu Lopez Gaseni

Aldizkari hau dohain, debalde, banatzen da. Jaso nahi badezu bete ohar hau eta bidali 1691 posta kutxara

GEU GASTEIZ ALDIZKARIA ETXEAN DOHAIN JASO NAHI DUT

IZENA:

DEITURAK:

KALEA: Zenb.: Pisua:

Kode postala:

HERRIA:



ZIGOR ENBEITA

Aste Santuan nora joan

I

Udaberrian dena ederra
zuhaitz, lore eta belar
eguzki printzak edo bestela
odei beltzek zenbat negar.
Astesantua ganean dago
oporretan joan behar.
Pentsatzen nago ni nora joan
dagoenean heltzear.
Hainbeste leku zoragarria
Euskal Herrietan zehar

II

Zugarramurdi edo Irati,
Orreaga, Zuberoa
paisai ederrez betea dago
Iparra eta Hegoa
Hala ta ere jende ugari
kanpoaldera badoa.
Ikus dezala zer dugun hemen
hori da nire gogo
gugan bait dago Euskal Herriko
turismoaren geroa



Postariak ekarriak

KULTUR ETORKIZUNA

Badirudi, Euskal Kultura, edo hobe esanda euskara hutsez egiten den kultura, betiko ekitaldietaz osatua dagoela: mahai-inguruak, bertso-saioak, eta halakoak beti euskararen egoerari buruz antolatzen dira. Baina, nolabait esatearren, beti mugitzen gara esparru berberetan, aldakuntza gehiegirik gabe. Beraz, nik uste dut badela garaia irudimena apurtxo bat landu eta kultur espazio berrietan hasteko.

Horien artean, honako hauek aipatuko nituzke, besteak beste: hiztun onak prestateko ikastaroak, informatikari buruzkoak, zinema, antzerkia eta abarrekoak.

Horrezaz gain, gauzatxo bat komentatu nahi nuke. Ez genuke beldur izan behar, mahai-inguru eta abarrekoetan, euskaraz ez dakien baten batek parte hartuko balu. Aspalditxo asmatu zen bapateko itzulpena.

Joxean Fernandez de Luko

OHARRA

"Postariak ekarriak" atal honetan, zuen berri jakin nahi dugu. Idatziguzu nahi duzuna kontatuz. Espazioa izango da jarriko dizugun muga bakarra. Eskutitzak gehien jota 20 lerrokoak izan behar dira eta bertan zure izena, abizenak eta nahi izanez gero zure lanbidea jar itzazu.

HEMEROTEKA

«Eskenatokian larrua ere uzten dut»

Nuria Espert
(Aktorea eta Antzerki Zuzendaria)

«Kultur programazioa, Udalak egiten du, auzokoekin kontatu gabe»

Enrike Pinedo.
(Zaramagako Auzo Elkartekoa)

«Emakumearen eguna, egunero izan beharko litzateke»

Araceli Miñambres
(Langabetua)

«Aurten 50.000 pertsonatik gora espero dugu Araba Euskaraz-en»

ARABA EUSKARAZ.
(antolatzaileak)

«Gustatuko litzaidake nire ondorengoak euskara jakitea»

Jose Maria Larrauri
(Gasteizko Gotzaina)

«Haurren saskibaloiak elitekoak baino poz handiagoak dakartza»

Txema Capetillo
(Baskonia taldeko entrenatzaile ohia)

«Poesia emozioa da»

Zacarias Custodio
(Olerkaria)

«Etorkizuna euskaraz»

Araba Euskaraz-ko lema.



**EGIN ZAITEZ
BAZKIDE**



THE ENCYCLOPAEDIA BRITANNICA

(33 Liburu Ingelesez)



Hispánica

(Gastelaniaz)

Zuzenbidea, Medikuntza,
 Fisika, UBI

**INGELES
 HITZ EGITEN AL DUZU ?**

ANGLOTUTOR

**Ingelesko Irakaskuntza
 Programatua**

**Era erraz eta atsegin
 batez ingelesa ikasteko.**

Anima zaitetz eta ikasi.

INFORMAZIOA NAHI BADUZU
 INONGO KONPROMEZURIK GABE

- E. BRITANNICA.....
- E. HISPANICA.....
- ANGLOTUTOR.....
- GREAT BOOKS.....

Izen - abizenak.....

Helbidea.....

P.K. HERRIA

TFNOA :

BIDALI EDO DEITU
 SIERVAS DE JESUS, 27 - 1º - Dpto - 10
 ERANTZUNGAILUA : 25 67 75
 01001 GASTEIZ

Kalea Mintzo

Dendak, igande eta jai egunetan irekita?

- 1.- Zer deritozu dendak jai egunetan ere zabaltzeari?
- 2.- Egia al da denda gehiegi dagoela eta premiazkoa dela birmoldaketa?



IÑAKI BERROSTEGIETA. (Dendaria)

- 1.- Atzera pausoa dela. Bizitza osoan jo ta ke jardun dugu asteburua atsedenerako izan dadin, beraz, ezin dugu onartu neurri hori. Zertarako borrokatu dugu? Hipermerkatu haundiek irets gaitzaten? Hauena, berekoikeria hutsa da. Salmenta klase guztia berenganatu nahi dute besteok ez gaudenean etekina ateratzeko. Gure artean ere zenbaitek ogiaren aitzakiarekin igandetan irekitzen ari dira, ni ez nago ados!
- 2.- Merkataritza saturatuta dago.. Mertakal Ganbarak badaki baina hartu dituen erabakiek ez dute emaitzik eman. Denda erraldoiek ofertak dituzte, guk ere baditugu. Erosotasuna eskaintzen dute, karrotxo hartu eta dena zeuk egin dezakezu. Zerbitzu, ordea, gurea hobea dela uste dut.

FLORENTINO BELTRAN. (Komertzio bateko gerentea)

- 1.- Inork ez du gogoko. Lan guztiak atsedenaldirako egun batzuk behar ditu eta horrela ezinezkoa litzateke. Normalean dendak famili artekoak direnez, aste osoan lan egitea suposatuko luke horrek. Gainera, uste dut eroslea ere ez dagoela ados neurri horrekin.
- 2.- Bai, merkatoriok, bai industriariek ere konpetentzia handiegia dagoela pentsatzen dugu. Ez nuke esango, halere, gehiegi dagoenik, eroslea maiz kexatzen baita nahi duena ez duelako aurkitzen



BLANKA. (Komertzio bateko langilea)

- 1.- Ez nago batere ados, langileok lege honen kontrakoak gara. Uste dut jendeak ez duela igandetan erosteko beharrik, horretarako asteleheneetik larunbatera gaude zabalik. Eroslea orain arte jai egunetan erosi gabe pasa bada, egun ere uste dut ez duela benetazko beharrik. Guzti honen atzean denda handien interesak daude.
- 2.- Denda asko dagoela egia da. Jendeak bizitzeko zerbaiti heldu behar dio. Dena den, saltoki txikiak egoera larrian daude. Eskerrak hipermerkatu bakar bat dagoen! Gehiago eraikiz gero, orduan bai jai egunetan ere ireki beharko genukeela.

IBUSGAR'I

t i n t a t e g i a

Alfonbrak, mantak eta edredoiak, narrozko arropak,
berokiak eta lumazko arropetan espezializatuak

DOMINGO BELTRAN, 26 • JUDIZMENDI, 20
TFNOA 14 19 45 • 27 05 83 • GASTEIZ

Auzoz-auzo, hemen:

- Ariznabarra: Ociogaztelua, 21 • Astulezgaiztelua, 3
- Sansomendi: Valentin Foronda, 3
- Zaramaga: Zuta, 14 • Nafarrako Erregeak, 56
- Abendaño: Abendaño, 1-37
- Adurza: Nieves Cano, 6 • Pio XII, 5
- Adriano VII, 1
- Pedro Orbea, 2


JORGE DIAGO. (Komertzio bateko langilea)

1.- Oso gaizki. Gainera, noiz edo noiz zabaldu izan dugu jai bereziren batean eta hori ez da errentagarria, ez zuela merezi konturatu ginen. Kontsumitzailea ere asmo honen aurka dagoela esango nuke.

2.- Bai, denda asko dago eta lore dendak are gehiago. Konpetentzia handia egon arren, denda bakoitzak lan egiteko era desberdina dauka; nortasun berezia. Berezitasun honek denda bakoitzari bere tokia izateko aukera eskaintzen dio.

LUIS SANTOS CARRERA. (Maisu)

1.- Astean zehar nahiko lan egiten dugu asteburua jai izateko. Nik astegunetan lan egiten dut soldatapean eta uste dut besteek ere eskubide berbera dutela. Dena den, batzuk asteburuan ere lan egin nahi badute, egin dezatela.

2.- Bai, erruz dago. Hau ez da Europa, hemen bakoitza bere aldetik doa. Beraz, ene ustez, administrazioak arazo honetan ez du zertan muturra sartu behar. Komertzioen arteko lehia horretan norberak ikusi beharko du zein bide hartu.


JESUSA UNDIANO. (Etxekoandrea)

1.- Oso gaizki dago. Langile baten bizitza hondatzea da hori.

2.- Bai, denda asko dago. Baliteke birmoldaketa bat beharrezkoa izatea; baina egia da baita zerga ugari ere ordaintzen dituztela. Irtenbide zaila ikusten diot, beraz, arazoari.'

ESTITXU LOPEZ DE LA CALLE. (Ikaslea)

1.- Ez dakit, egia esan ez dut pentsatu. Dena dela, igandeetan ere zabaltzen badituzte langile berriak hartuz, ondo legoke.

2.- Bai, ugari daude. Biltegi haundiek beti azpian izango dituzte komertzio txikiak baina, hauek eguneroko ogia irabazi behar dute ahal duten moduan. Irabazpidea bilatzea ez baita xamurra.


CARMELO PINILLO. (Langabea)

1.- Gaizki dago, jai egunak atsedenerako baitira. Hipermerkatuek interes berezia dute ateak zabaltzeko igande eta jai egunetan, denda txikiek porrot egin dezaten.

2.- Bai, erruz daude. Ez dakit zein izango den irtenbidea, denda erraldoiek txikiak azpian hartu dituzte eta azken hauei ez diet etorkizunik ikusten, behea jotzen ari baitira.

GARNICA 
FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK

Gorbea kalea 40 • Tfnoa: 24 18 73

Bazenekien...?

... Ia hiriaren sorrerarekin batera Gasteizen agertzen diren juduak Juderia kalea deituko zen hartan (gaurko Nueva Dentro kalean gutxigorabehera) bizi zirela isolaturik?

... Ekialderantz harresia eta Pintoreria kalearekin inolako komunikaziorik ez zeukan Juderia kalera sartzeko ate bakarra, gauero ixten zena, Erregearen Atarikoa zela?



... 1492ko martxoaren 31n Errege-Erregina Katolikoek juduak kanporatzeko agindua plazaratu zutenean, hauek Judimendin zeukaten hilerria Gasteizko Udalari eskaini ziotela?

... Gasteizko Udalak orduko juduekin sinatu akordioa, Baionako Biltzar israeldarrak 1954an besterik erabaki arte errespetatu zela?

... 1860ko uztailaren 18an, arratsaldeko 1,37etan, erabateko eguzki eklipsea izan zela Gasteizen?

... Gasteiztar gehienak hurbildu zirela beira keztatuz eta ikustailu bereziz horniturik Judimendin jarritako begiratokira?

... Bertan, teleskopio eta guttiz, Dorpart-eko Behatégi Errusiarreko zuzendaria, batzorde ingeles bat eta zenbait zientzilari frantziar izan zirela?

GERO GEROKOAK.
ORAIN

EUSKARAZ
BIZI!



Peru kalea, 8 Tfnoa: 22 60 50 • Jose Mardones kalea, 8 Tfnoa: 26 35 40

Haur, gazte eta heldu



Gero eta haur gutxiago jaiotzen dira. Honela esaten dute, behinik behin, azken garai hauetako estatistikek. Gasteizen ba ote dakigu zenbat diren haurrak, gazteak eta helduak? Euskal Estatistika Erakundeak bildutako datuen arabera, 36 urtekoa da gasteiztarron batz besteko adina. Beste bitxikeria bat ere jakin ahal izango dugu: emakumezkoak luzaroago bizi dira eta beraz hauen batz besteko adina 36,6ra igotzen da gizonezkoena 34,7an geratzen den bitartean..


Biztanlegoaren adina

Datuek Gasteizen populazioa zahartzen ari dela esaten badute ere, esan beharra dago 13 eta 20 urte bitartekoak direla gehiengoa gure hirian. Izan ere, 35.781 dira adina hauen bitartekoak, horietatik 18.324 gizonezkoak eta 17.461 emakumezkoak direlarik.

Aurten 18 urte beteko dituztenak dira bestealdetik, hauen artean kopuru handiena osatzen dutenak: 3.845 gazte orotara; 1.967 gizonezko eta 1.878 emakumezko.

Gaurrengungo biztanlegoa kontutan hartzen badugu emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago dira. Halere,

ez da fenomeno hau ematen gazteen artean. 13 eta 20 urte bitarteko gazteen kasuan gizonezkoak dira gehiago. Edadetuaren artean, ordea, emakumeak luzaroago bizi direla ziurta daiteke. Izan ere, 83 eta 92 urte bitartekoen kopurua honako hau da gure hirian: 2.769 emakumezko eta 1.399 gizonezko. Joera hau orokorra da 63 urtetik aurrerako gizatalde guztietan.



Ume jaioberrien izenetan euskal izenak nagusi.



GORKA.

Auzitegitik buelta bat emanez gero, gaur egun ume jaioberrien izenetan ugaritasun handia dagoela konturatuko gara. Azken urteetan betiko izenak alde batera uzteko joera nabarmena da. Izen arraroak modan daudela esan ohi dute Auzitegietan lanean dabilzanak.

1993ko lehen hiru hilabeteko datuen arabera, urte honetan bere seme-alabei izen exotikoak jartzea erabaki duten gurasoak %6 aren inguruan dabilta. Tania, Yeray, Yoel edota Yaiza bezelako izenak eramango dituzten zenbait Gasteiztar daude.

Ingelesaren eragina ere nabarmena da seme-alaben izena aukeratzeko orduan. Gasteiztar jaioberrien %7.8a inguru ingeles jatorria duten izena eramateak hala erakusten digu. Cristian, Jennifer,

Kevin edo Jonatan ugari aurkitu ditugu.

Cristina, Jose, Javier, Alberto edota Beatriz izenak ipintzen dituzten gurasoak oraindik ere aurkitu ditzakegu. 1993an Gasteizen jaio diren umeen %39 inguru gaztelaniazko izena eramango dute.

Atzerriko eragina nabarmena izan arren, 1993ko lehen hiru hilabeteetan jaiotako ume gehienak, %47.10 inguru, euskal izenak eramango dituzte. Euskal izenen barnean ere bi maila ikus daitezke; batetik betiko euskal izenak, Mikel, Amaia edo Miren esate baterako; eta bestetik euskal izenen barruan arraragoak direnak Odeia, Ieltxu edo Bidatz besteak beste.



HEGOALDE
euskaltegia.

Florida 58, behea. Tfnoa. 284196 - 01005 GASTEIZ




zalu
FOTOKOPIAK

Berehalaxe!!
Prado 20

Tfnoa: 945-288248 • Faxa: 945-253291

Gasteizko biztanlegoa adinez adin



«Cuatro Torres»: Pertsona nagusien elkarten artean aintzindaria.



Antonio Gonzalez

Pertsona nagusien kopurua gero eta altuagoa da gure gizarteetan. Pertsona hauek giza talde garrantzitsua eratzen dute gaur egun, talde bezela bere elkarteak sortzen hasiak direlarik. Talde hauetaz hitzegitean, «Cuatro Torres» jubilatu, pentsiodun eta alargunen elkarteaz ezin gara ahaztu. Izan ere 1979. urtean sortutako elkarte hau era honetako taldeen aintzindaria dugu.

Antonio Gonzalez elkarteko zuzendariak azaldu digunez 16000 bazkide osotzen dute «Cuatro Torres» elkarte. Bidaiak, hitzaldiak edota ikastaroak antolatu ohi dituzte urtean zehar pertsona nagusiek aspertzeko denborarik eduki ez dezaten.

Dagoeneko literatura txapelketa bat antolatu dute. «Gaur egun gure elkarteak jende nagusiaren artean duen arrakasta, lana ondo egitearen ondorioa da.»

Jende nagusia gure artean gero eta ugariago izan arren, oraindik ere nolabaiteko bazterketa nabari du Antonio Gonzalez-ek pertsona nagusiekiko. «Amorru handia ematen dit jendeak komentatzen didanean bidai gehiegi egiten ditugula edo ondoegi tratatzen ditugula; akaso ez dute merezi? Gazteak ez dira konturatzen etorkizunean ere zaharrak izango direla.»

Pertsona nagusien arazo

Ikusentzutekoei buruzko masterra, zinegileen eskola

Euskal Herriko zinemagintza sasoi bikainean dagoelaren froga ugari ikusteko aukera izan dugu azken bolada honetan. Hala ere oraindik oinarri sendoagoak behar omen ditu, langile onak alegia. Horren ladeko pausua da Gasteizko Imajina eta Teknologia Berrien Udal Zentruak antolaturiko ikusentzutekoei buruzko masterra.



Zinegileen harrobi berria



Zinemagintzari buruz Araban egin den lehen masterra hiru arlotan banatu dute antolatzaileek: ekoizpena, gidoia eta gauzaketa. Hiru dira era berean masterraren antolatzaileak: Gasteizko Irudi eta Teknologia Berrien Udal Zentrua, eta Informazio Zientzien eta Arte Ederretako Fakultateak. Hauen helburua lan merkatuan murgiltzeko prestatuak egongo diren 15 profesionale trebatzea da.

Gidoigintza zinemagintzaren lan intelektualaz arduratzen den arloa da. Master honetan Fernando Altarriba da sail honetako tutorea. Berarekin batera Fernando Blanco, Dolores Payas, Jon Elorza eta Mario Onaindia izango dira, besteak beste, lan intelektual landuko duten irakasleak.

Emma Rodriguez. Ekoizpena

Zer ikasi duzu hau egin aurretik?

Kazetaritzako karrera egin nuen eta horretatik aparte mundu honen inguruko hainbat kurso eta ikastaro egin ditut.

Lan munduan esperientzia al daukazu?

Bi urte egon naiz bikoizketa lanak egiten. Horrez gain irratian ere lan batzuk egin ditut baina kontrataturik egon gabe.

Zergatik sartu zinen ekoizpenaren arloan?

Nere ustez ekoizpen lanak egiten

mundu honen erdi-erdian zaude eta horrela denetatik apur bat ikasteko aukera izatea espero dut. Gainera produkzioaren arloa erabat praktikoa dela iruditzen zait. Hau da, ez badugu praktikarik egiten ez gara aurrera joango eta hori da nik nahi dudana.

Masterrarekin zer lortzeko asmoa duzu?

Niri ez zait tituloa interesatzen, egia esan lan egiteko aukera izango nuela uste nuelako nago hemen.

Zer iruditu zaizu masterra ?

Guzti honen alde teorikoa ikusita



neukan unibertsitate garaietan, beraz praktika izan da nik gustorago egin dudana, gehien interesatzen zaidana bait da.

**GILZA
ARBA**
ZERRAILDEGIA

LARRIUNETARAKO ZERBITZUAK 24 ORDUZ
zerrailak, giltzak, atekak kotxeak...

Tfnoa: 945-26 57 29

Jose Mardones, 7
01004 GASTEIZ

MUGA

**LIBURUDENDA ESPEZIALIZATUA
KARTOGRAFIA, BIDAIK
ETA MENDI GAJETANA**

driano VI, 4
Tfnoa: 14 63 25
GASTEIZ

Navarrería, 20
Tfnoa: 22 25 29
IRUÑEA-



Gidoigintzako taldea

Zer iruditu zaizue masterra orain arte?

Guk uste genuen baino maila baxuagoa dago, ez du guk espero genuena bete. Hala ere hori master bat nolakoa den ez genekielako izan daiteke hori. Eta gauza bat argitu behar da arazoa ez da irakasleek gutxi dakitela, arazoa egotekotan plangintzan egongo litzateke.

Zer da master honekin lortu nahi duzutena?

Nolabait ikasteko etorri garelara esan behar da baina baita lana bilatzeko ere. Hau da ikasi nahi dugu, prestakuntza osoagoa lortu baina gero hori praktikan jartzeko bestela ez du ezertarako balio.

Eta nola ikusten duzue etorkizuna?

Gidoilari asko dago baina ez dago



lanik gure lana errespetatzen ez delako. Gidoiari ez zaio askotan merezi duen arreta guztia eman eta horregati gidoia zuzendariak edo errealizadoreak berak egiten du. Eta hau konpondu bitartean ez da ezer aldatuko master bat egin ala ez.

Gidoia irudiaren osagarria da ikusentzuteko medioetan. Are gehiago, batzuetan filme edo dokumentalaren ardatza izan daiteke.

Zinemagintzari buruzko masterrean gidoiaren ideia, horren gauzaketa praktiko eta tekniko eta beraren aurkezpena landuko dira beste punturen artean.

Sail honetako bost ikasleek gidoiaren garrantzia azpimarratu dute baina ezkorrak agertu dira etorkizunari begira. Beraiek azaldu dutenez gidoilarietatik lana egon badago baina normalean gidoilari gutxi kontratatzen dituzte ekoizleek dirua aurrezteko asmoz.

Gauzaketa, zinemaren alde teknikoa

Montxo Armendariz zuzendaria da gauzaketa saileko tutorea. Armendarizek etorkizun gehien duten euskal zinemagileen laguntza izango du. Imanol Uribe, Julio Medemek eta Juanma Bajok zinemagintzaren gauzaketari buruzko klaseak emango bait dituzte. Eta gai berdinari buruz ere hitz egingo die ikasleei Pedro Almodovar berak.

Zinegile hauen klaseetara joateaz gain telebista eta bideoaren teknologia ikasiko dute lehenengo sail honetako bost ikasleek eta ondoren horren aplikazio praktikoari egiteari ekingo diote gero.

Ikastaroaren zatirik garrantzitsuen praktikoak izango da antolatzaileek azaldu zuten, horrela unibertsitatean lehenengo eta masterrean bertan gero barneratutako ikasgaiak aplikatzeko aukera iznago dute.

Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

URTEGI-ALDE

SAGARDOTEGIA

Urrunaga (Araba) Tfnoa: 45 50 67

Ekoizpena edo planifikazioaren beharra

Fina Salegi da ekoizpena aukeratu duten bost ikasleen tutorea. Finak Elias Kerejeta, Fernando Blanco eta Ramiro Gomezen laguntza izango du besteak beste.

Ekoizlearen lana gidoiaren gauzaketan aurrera ateratzeko beharko diren bitarteko guztiak lortzea da; izan ere, bere eskuetan dago horren garrantzitsua den aurrekontua. Bere esku dago filmea egiteko behar den guztia lortzea, gidoi teknikitik hasita, aktore, dekoratuak eta, esan bezala, finantzaketa plana arte.

Guzti hau nola egiten den ikasiko dute masterreko bost ikasleek. Ikasle beraiek eta antolatzaileek azpimarratu dutenez lan praktikoa da master honen helburua.

Etorkizunean ekoizle izan nahi duten hauek salatu dutenez lan hau oso gogorra da eta gehienetan ez du inork egin nahi izaten, horrexegatik gehienetan ekoizle lanak egiten dituztenak ez dira zehazki horretarako prestakuntza jaso duten langileak.

Eta master honen emaitza kurtso amaieran ikusiko da, bukaerarako proiektu sakon bat aurkeztu behar du ikasle bakoitzak. Honekin beren curriculum a ederki hornituko duen lana izatea lortu nahi dute ikasle eta irakasleek, lan munduan murgiltzeko tresna bat alegia.



Teresa Garcia. Gauzaketa

aurreikusita zegoen guztia egin bitarteko falta dagoelako.

Zer iruditu zaizu orain arte egindako lan?

Nik maila altuagoa egongo zela uste nuen eta horregatik arlo teorikoak ez du nik espero nuena bete. Egia esan unibertsitatean ikasitako gauza asko eman digute. Hala ere praktika da nik egin nahi dudana eta arlo honetan bai espero dut zerbait lortzea.

Zer eritzia daukazu orain arteko monografikoetaz?

Montxo Armendarizekin izan dut monografikoa orain arte eta ondo egon

zen. Kontutan hartu behar da berak praktikan frogatutako gauzetaz hitz egiten zigula eta hori oso interesgarria da orain arte lan gutzi egin dugunontzat.

Masterrak atea irekiko dizula uste duzu?

Lan interesgarri bat aurkeztzen ez baduzu tituloak ez du ezertarako balio beraz helburua hori da: masterrean lan on bat burutzea. Horrela eta guztiz ere ez dut uste inork lan batekin etorriko denik hau bukatu eta gero. Gauzak oso gaizki daude eta emakumeontzat hare okerrago.

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ




GORETTI

ILEAPAINDEGIA


San Antonio, 29-Behea

Tfno: 13 18 55


01005 - GASTEIZ




Egurrezko jostailuak



Didaktika - materiala



Beniz



Opariak

Benito Ginea, 2
Tfnoa: 25•75•14
GASTEIZ



Korrika-8. Aurten ere, Korrika gure kaleak zeharkatu egin zituen. Hogeita lau kilometro, lekukoa gure hiriko elkarte eta kolektiboen eskuetan ibili zelarik. Korrikarekin batera hainbat jai, ekitaldi, mahainguru, bertso-saio ikusteko parada izan dugu bukatu berri den hilabetea. Eta nola ez! Milaka ume bildu zuen Korrika Txikia ahaztu gabe.



ELKAR

FAGOR 

**SUKALDEKO
HALTZARIAK**

Manuel Iradier, 37
Tfnoa: 25 45 88
Faxa: 27 81 93
01005 - GASTEIZ

I K U S I T A K O A K



1



2



3



4



5

- 1.- Korrika Txikiak Enparantza Berria bete zuen.
- 2.- Gasteizko Dantzariak Foru Enparantzan.
- 3.- Dantza Jaialdia.
- 4.- Bertsolari gazteak Villa Suson.
- 5.- Jo ta dantza.

Gure deitura deitoragarriak

Euskaldun batzuk badira, honez gero, bere izena euskaldundu dutenak. Horrela, lehen Jesus zena orain Josu izan daiteke, eta Luis bataiatu zutena Koldo bihurtu da legalki. Izenaren "itzulpen" moduko hori legez bideratzea ez da, antza denez, hain zaila.

Oso bestelakoa da, ordea, abizenekin gertatzen dena. Askatasun demokratikoak lortu zirenetik hainbeste urte pasa eta gero, oraindik zailtasun ikaragarriak ditugu gure deiturak euskal grafiaz legezatzeko. Gauza jakina da errejistro zibila gobernu zentralaren kompetentzia dela. Bertako arduradunentzat hizkuntza batetik besterako "grafia-aldaketa" kontzeptu ulergaitza da. "¿Qué es eso?" galdetuko dizute. "En todo caso, usted tendrá que iniciar el trámite para cambiar de apellido?".

Tramite hori ez da txorakeria gero: dokumentazio-pilaketa izugarria eskatzen du, zuk aldeaz aurretik leku gehienetan legezko ez den abizen hori erabiltzen duzula demostratzeko. Dokumentazio guztia Madrilera bidali ohi da, han ongi aztertu ondoren, ministroak sina dezan. Agiri horien artean Euskaltzaindiarena behar da, zure abizenaren euskal grafia zein den adieraziz (abizenetan grafia zuzen

bakarrak hitz egin ote liteke?). Baliteke, beraz, zuk erabili duzun forma eta Euskaltzaindiak proposatzen duena bat ez etortzea. Akabo! Azkenean, bulego-bisita eta paper-dantza horretan puntu horretara iristen zarenerako, aspertzen eta, areago, etsitzen hasia izan zintezke. Egun batzuetan zure ekimen zoro horren idea beratzen utzi eta gero, zer egin ez dakizula konturatu zara. "Zertarako konplikatuta behar dut ba nik bizitza?" galdetuko diozu zure buruari.

Bide estu estu eta malkartsu honetatik abiatu behar baldin bada, ez dira ez, euskaldun asko beren deiturak euskaraz legezatzera iritsiko. Alferrik izango da gure buzoian, udal-errolan edo egunkarian euskal grafia erabiltzea: gauza inportanteetarako gure izenak v, c, gu, qu eta horrelakoez josita agertuko dira, eta aurrean dugun funtzionarioak legezko arrazoi osoarekin ukatuko digu gure eskubidea.

Hain konplikatua ote da ba, sistema bizkor eta erraz bat eratzea grafia-aldaketa horiek ahalik eta modu sinpleenean egiteko? Hori ez da, izatez, abizen-aldaketa bat. Euskal abizenak euskararen grafiaz idaztea da soil-soilik. Herentzia bat kobratzeko problemak izan omen daitezke abizenak bat ez badatoz. Kontxo, baina zergak

ordaintzerakoan inork ez dio oztoporik aurkitzen euskal izenari!

Errejistro zibila Madrilen kompetentzia bada ere, euskarari dagozkion gaietan gure gobernuak badauka zer esana, eta hala aitortzen du Euskararen Normalizazio Legeak. Agirre beti eta nonahi Aguirre-ren baliokidea dela legez ezartzea pentsaezina ote da? Norberak eskatu hutsarekin, automatikoki, onartu behar litzaioke edonori bere euskarazko izena. Beste kontua da, noski, baliokide posible eta onargarrien zerrenda egitea. Recalde-ren ordaina Errekalde den al Rekalde ere onar daitekeen aztertu beharko da. Erabaki tekniko horietan Euskaltzaindiak litzateke gidari. Nolanahi ere, oso kontuan eduki behar litzateke jendea bere abizenarekin oso identifikatua sentitu ohi dela, eta, beraz, gaurko egunera iritsi zaigun formatik gehiegi aldendu gabe ibiltzea komeni zaigula, tentazio etimologista edo bateratzaileegietatik aldentuz.

Grafiaren problema honek euskaldungoaren zati handi bati eragiten dio (batzuen zorionerako beren abizenek ukitu beharrik ez badute ere: Zabala, Igartua...). Ez dut uste gure agintariei konponbideren bat eskatzea ausarkeria denik.

I. Olaziregi

ONAINDIA
garraioak



Denerako prest

Tfnoa: 908 - 67 34 77 • ARABA

ALBENIZ
MOBILIARIO


Cercas Bajas, 8
Telefonoa eta Faxe 28 74 82
01008 GASTEIZ

LIBURUAK


RIOJA ALAVESA
 ARABAKO FORU
 ALDUNDIAk argitaratua. 76.
 orrialde.

Egilea: Pedro M. Uribe
 Etxabarria

Arabako Errioxari buruzko liburu dugu honako hau, bertan eskualde honen ingurugiroa azterten baita. Grafiko eta argazkietan Arabako Errioxako lora eta fauna.



ALICE

Aliceren abenturak lurralde mirengarrian.

Ispiluan barreta eta Alicek han aurkitu zuena.

Pamiela. 160 orrialde.

Itzulpena: Manu Lopez Gaseni
 Azala: Erramun Landa

Liburu hau Manu Lopez, Gasteizko bizilaguna denak euskaratu egin du. Edizio berezi honek Lewis Carroll-ek Aliceri buruz idatzi zituen bi liburuak biltzen ditu

HONTZA
Gazte-musika
A La Fuga: lehendabiziko pausoa onespenerantza

Freskuak, jatorrak, apalak eta ideiak garbi, badakite egiten dutenak eta musika berak etorkizun ona izan dezaketela. Rockzale handiak, «A la Fuga» izeneko Gasteiz eta Legutioko talde honek eman berri du bere lehengo urratsa onesperantza. «Demalafé», «Tubo Skape» eta «Ironic Cancer Phobia» taldeekin batera, Diputazioak antolatutako Pop-Rock lehiaketa irabazi zuten arabar taldeen laukotea osatzen dute. Dagokien saria, laurok elkarrekin egindako grabazio bat eta «Elefante Blanco» diskotekan hurrengo apirilak 23an burutuko duten kontzertua izango delarik.

Hiru abesti izango dira «A la Fuga» taldeak ekarritakoak: martxa handiko «Un largo viaje» eta «Escapa» kanta, «El último trago (en el infierno)» erlajatuagoarekin batera. Den denak Gasteizko Digital Diko-n grabatuak,

Koldok baterian egindako laguntza-rekin, eta grabazioa CD edota kasetean soilik izan delarik.

Euren estiloan argi igertzen da 70. hamarkadaren rock'n rollaren eragina; halere, «A la fuga» ez dugu bakarrik bere taldekideek gehien miresten dituzten musakalarien imitazio hutsa.

Itsaso, Alex eta Jorgek bat egiten dute konplikaziorik gabe rock zuzena burutzeko, errepikapenarik gabe euren musika eginez.

Halere, publikoaren laguntza eta onspena behar dute zenbait kontzerturekin batera. Alexek bere abotsa eta gitarraren estiloa jarriko du. Itsasok ederto landutako bigarren abotsaeta basuaren erritmoa. Jorgek, sokak hatzamarren artean, abestiak boro-bilduko dituelarik. Momentuz baketek ez dute jaberik, sail erritmikoa osatuko duen laugarren kidearen ailegaeraren



zain, kolaboratzaileen eskuetan egonik. Rock talde batentzako oinarrizko formazioa, Arabako hiriburuan bizi arid den musika gorakadaren erakusle. Euskal Herrian gutxi landutako musika estilo baten erreferentzi puntua. Mende bukaera honetan rock'n roll-ak abangoardia musikal denaren lekuko.

Ez ahaztu, ez galdu begibistatik!

Joxemari/Txabi Arnal Gil

GASTEIZ euskaltea
 Errege katolikoak, 15-C.
 Tfnoa: 28 89 22

PINTO euskaltea
 Pintoreria 74.

Tfnoa: 28 97 80

ZALDIARAN euskaltea
 Zaldiaran Plaza, 16.

Tfnoa: 24 49 05

EUSKARAZ



JANTZIAGO EUSKALDUNAGO

hAurRAk

BERAK EZ ZUEN, INOLAZ ERE, INOIZ EGINGO

Gaur, txakur abandonatuetaz hitzegingo dugu. Egun hauetan txakur asko ikusten ari naiz kaletik arduradunik edo jaberik gabe. Nik ez dakit zergatik abandonatzen dituzten oso maitagarriak bait dira.

Etxean edukitzea oso molestagarria bada, erosi duzun tokira joan eta itzuli. Edo norbaitek oparitu badizu edo nonbaitetik hartu baduzu, norbaiti oparitu, seguru izango duela, txakurraren bizitza osoan. Edo zerbait egin, animaliak kalean bakarrik ez uzteagatik. Edo bestela, baita ere, oso molestagarria bada txakurra etxean edukitzea, eta animalirik etxean eduki nahi baduzu, erosi pelutxe bat. Horrela, ez duzu kalera lau aldiz gutxienez jaitsi

behar, ezta ez zaitu molestatuko.

Txakurrek sentimendu handiak dituzte, eta txakur bat etxean eduki eta gero abandonatzen baduzu edo kalean bazterturik uzten baduzu, oso triste jartzen da, zuk egin diozunagatik. Eta gainera, berak ez du, inolaz ere, inoiz hori egingo. Kartel batzuetan jartzen duen bezala "Hark ez luke inoiz egingo"; eta arrazoi osoa du. Beno, orain esan dudanagatik ea zerbait egiten dugun txakurrak edo animaliak ez abandonatzeagatik, pertsona normal bat bezala bait dira.

Amaia Gz. de Mendoza.



EUSKARA

Euskara, zeu zera gure herriaren hazia
zu gure zeruaren izarra ta eguzkia,
zu gure musikaren melodia.

Gu euskaldunak, gara zure semeak,
gu zure suaren kea,
gu zure indarraren katea.

Aitziber

Guri kontatzeko zerbait duzula?
Zure ipuin bat? Idazlana? Poesi bat?
Komiki politikak daukazula kajoian?
BIDALI GEU GASTEIZera eta aldizkarian
aterako ditugul

GEU GASTEIZ
1691 postakutxa. Gasteiz

arcaya

Portal de Villarreal, 22-24
Tfnoa: 26 06 58
Portal del Rey, 21
Tfnoa: 28 08 69

SOINUA
IRUDIA
ARGIZTAPENA
ELKTRAGAILUAK
OPARIGAIK

zure euskal
LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

errikoia

hAurRAk

IGARKIZUNAK

Udan eta neguan
entzerratua,
bakarrik ikusten nau
medikuak.

(kaineria)

Tontorrean zutik
gizonen gidari,
haizea dagoenean
begira berari.

(haizorratza)

Bisitari ezatsegina,
inork ez nau maite.
Presente izaten naiz
baldin banaukate.

(gosea)

Argal eta zurbil,
bihotza pizten zaio
sua badu hurbil.

(kandela)

Batera doaz
bi lagun zaharrak,
batak hamabi pausu
besteak bakarra.

(erlojuaren orratzak)



Ilea kanpoan
ilea barruan,
eta haragi puskak
dauzka barruan.

(eskularra)

Soroan berdea
beltza plazan
eta gorria etxean.
Zer izango ote da?

(ikatza)

Egon ohi dira geldi
eta mugiturik,
lotan egunez
esnaturik gauzez.

(izarak)

Soroan lanean
eta dirudik ez,
koroa darama
eta erreinurik ez,
esproiak ditu
eta zaldirik ez.
Nor izan daiteke?

(oilarra)

Borobil-borobila,
hondorik gabeko
edalontzia,
edateko balio ez,
hatzaren babesle.
Ba al dakizu zer den?

(ditarea)

den-dan
h a l t z a r i a k

Gerardo Armesto, 2 • Tfnoa: 24 38 49
01008 GASTEIZ

ditare

MIHISEDENDA
UME ETA EMAKUMEENTZAKO
LENTZERIA ETA BARRUKO ARROPAK
Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

hAurRAk

Ipuina

MAX eta MORITZ

(Bigarren barrabaskeriaren zati bat)

Max eta Moritzek hartu dute usaina:
"Azkar har dezagun teilatua gaina!"

Ikusten dituzte tximinitik
oilo lumatuak ipinirik,
Buru eta barrukiak kenduta
sartaginean gozo maniatuta.




Bolte alarguna doa gustora
plater bat eskuetan sotora
ekartzera aza min piskatxoa
horrek ematen bait dio gustotxoa,
lapikoan egosi eta pasa
biziki gustoko du jatea aza.

Biak bitartean teilatuan
lanean daude segituan.
Maxek ekarri du badaezpada
amua egiteko barrabasada.

Kriskitin, eta badator gora
lehen oiloa golkora!
Kriskitin, bigarren oiloa albora!
Kriskitin, hirugarren oiloa ondora!

Eta laugarrena dator ondoren,
Kriskitin: hemen dago ondoen!
Kanelok ikusi du ondo hau
eta zaunka dagi, guau guau!

Baina biek bizkor asko
daramatzate oilar eta oilasko!
Orain izango da ikustekorik,
Bolte anderea itzultzean sototik;
zur eta lur geratu da
ikusirik sartagina hustuta.



1865ean idatzi zen liburu hau,
ilustrazio ugariz eta testua erriman
duelarik, bi mutiko bihurriren
trastadak kontatzen ditu.
Alemanian haur literaturan klasiko
bat da eta oso ezaguna.

Max eta Moritz estilo honetako
bikore bihurrien aintzindaria da.
Gure artean ezagunagoak izan
diren Zipi eta Zapek, esaterako,
hauen antz handia daukate.

Liburuan zehar mutiko hauen sei
barrabaskeria agertzen dira, eta
azken kapituluan zigorra jasotzen
dute. Bukaera moralista hau izan
arren, liburu interesgarria da.
Azkar irakurtzen da, testua eta
ilustrazioaren arteko erlazio horrek
ulertzeko errezago bihurtzen bait
du liburua, zailtasunik egotekotan
hitzen batean edo bestean, erriman
izateak apur bat zaildu egiten
duelako testua.

Umorezko liburu entretenigarria.

HADE

EUSKALTEGIA

Elvira Zulueta, 4 (Prado parkearen ondoan) • Tfnoa: 23 09 44 GASTEIZ

J A T E T X E A



Kutxillera, 26 tfnoa: 28 81 47
-GASTEIZ

KIROLAK



Ernesto Valverde eta Carlos Martinez, lehen mailako bi arabar



Futbolzale arabarroi Alaves lehen mailan ikustea gustatuko litzaiguke. Momentuz, hau gauzatzen ez den ametsa denez, geure bihotza beste euskal taldeengana zuzentzen dugu. GEU GASTEIZ-ek Real eta Athletic-en dauden bi arabarrekin hitz egiteko aukera izan du, hala ere Ernesto Valverde eta Carlos Martinez ez dira goi mailako futboleko jokatzen duten gure herrikide bakarrak.

Muluma

MASAIA - QUIROMASAIA
Kote Zubizarreta

Olagibel, 20 • Telefonoa 25 92 06

AZOKA

K i r o l a k

Zure kirol- oinetakoak

Gorbea 27 tfnoa: 24 22 05
Ariznabarra 17 tfnoa: 14 71 33

GASTEIZ



Alaveseko harrobiak lehen mailako jokalaria gutxi atera ditu, baina Carlos Martínez hoietako bat da. Talde arabarraren maila guztiak ezagutzen ditu eta lehen taldera igo zenean, Alaveszaleak harro zeuden. Kasu berezia dela esan genezake. Errealak erdilari honen elengatiaz berehala ohartu zen. Alavesek Atotxan jokatu zuen Sanseren aurka, Carlos Martínez baloia hartu, eta jokaldi zoragarri baten ostean...zas!, gol izugarria benetan. Zubietako adituek ez zuten bitan pentsatu. Sansen urtebete eman ondoren, Errealeko partaide bat gehiago bihurtu zen. Hasiera batean entrenatzaile gipuzkoar guztiek Carlos Errealak erdialdean behar zuen burua izango zela aurrikusi zuten. Hala ere, gasteiztarrek ez du suerte handirik izan, eta ukaldiek bere ametsak bidearen erdian utzi dituzte. Ia urtebete min hartuta egon eta gero, dagoeneko entrenatzen hasia da. Datozen urteetan Anoetako zelaiaren erdian jaun eta jabe izango dela ziur gaude.

Carlos Martínez

«Txikitatik nire ilusioa Alavesen jokatzeari»

-Zein auzotan jaio zinen eta non ikasi zenuen? Beti Pilar auzotik hurbil bizi izan naiz. Ikasketak "Luis Dorao"-n burutu nituen.

-Zein taldetan jokatu duzu? Mutil koskorra nintzela, Alavesera joan nintzen. Maila guztietatik pasa ondoren, lehen taldera igo ninduten. Handik Sansera, eta gaur egun Errealan.

-Noiz jokatu zenuen Alavesen? 1979tik 87ra.

-Athletic edota Errealeko jokalaria izan den arabarririk gogoratzen duzu? Uralde ere arabarra da. Hala ere, Errealan behintzat oso arabar gutxi jokatu dute.

-Zer oroipen utzi zizun Alavesek? Txikitatik nire ilusioa Alavesen jokatzeari. Egitan, ez dut inoiz ahaztuko.

-Zer iruditzen zaizu gaur egungo Alaves, igoko al da? Kanpotik ikusten dut, baina gaur egungo zuzendaritza serioagoa dela argi dago. Alavesaren himnoak dion bezalaxe, taldea goian ikusiko dugu berriz.

-Estatu espainoleko selekzioaren hamaikakoa noizbait egon zara? Inoiz ez.

-Pasa den hilean Athletic eta Errealaren arteko euskal derbya izan zen. Oso norgehiagoka berezia, ezta? Motibazioa beste partidutan baino handiagoa da. Zure atzean bi zalegoak ikustea itzalezkoa.

-Derbyren bat zure gogoan duzu? Bai debuta derby batean egin nuen. Nik taldearen lehenengo gola sartu nuen. Gainera emaitza 2-3 izan zen gure alde.

-Azken urteetan bi talde euskaldunen arteko giroak txarrera egin du? Azken urtetako tirabirek urduritasuna ekarri zuten. Errudunik ez dago, baina Athleticek hemengo jokalaririk onenak bereganatu zituen, eta hau Donostian ez zuten begi onez ikusi. Hala ere, Atotxako azken derbyaren giro onak harritu ninduen.

-Zer deritzozu euskal taldeetan atzerritarrak egoteari? Zalegoak taldea goian ikusi nahi du eta Zubietako harrobiak, edozein harrobi bezala, une txarrak bizi izan ditu batzutan...

-Anoetako futbol zelaia hotzagoa izango da? Hori geroak esan beharko du. Dena den ez da berdina izango. Gipuzkoarentzat Atotxa zaharra ahaztezina izango da.

-Gasteizko gaua ezagutzen duzu? Gautxorria al zara? Partidua dagoenean, ezin zara atera. Ni berriz, azken hilateetan min hartuta ibili naizenez, lagunekin irtetzeko aukera izan dut. Gasteiz zein Donostia asko gustatzen zaizkit.

-Nortzuk agintzen dute Gasteizen, errealezaleek ala athleticzaleek? Hortxe hortxe ibiliko dira. Hori bai, jende guztiak Erreala talde jatorizat hartzen duen bitartean, batzuek ulertzen ez dudan gorrotoa erakusten dute Athleticengan. Bestetik, Athleticzale asko daudenez, gogor ekiten diete hauei.

-Arabian talde bat lehen mailan edukitzeko harrobia dugu? Egia da lehen mailan oso jokalaria arabar gutxi daudela. Arabian harrobia alde batetara utzi dute eta hau zorritzarekin Alavesaren akatsa da.

**Cervecería
Alemana**

Gerardo Armesto, 3 • (Gasteiz etorbidearen ondoan) Tfnoa: 13 29 88 • GASTEIZ

SALTXITXAK
KAZOLATXOAK
SANDWICHAK

VDABERRIA

elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 63 12
GASTEIZ

Ernesto Valverde

«Athletic-ekoek bereziak izaten jarraitu nahi dugu»

Zein auzotan jaio zinen eta non ikasi zenuen? Adurtzakoa naiz eta "San Ignacio" ikastetxean ibili nintzen.

Zein taldetan jokatu duzu? 17 urte nituela, Alavesek fitxatu ninduen. Ordurarte "San Ignacio"-ko taldeetan egon nintzen. Alavesen lau urte eman nituen. Beranduago Sestao, Español, Barcelona eta azkenik Athletic.

Noiz jokatu zenuen Alavesen? Ba,...orain 12 urte.

Athletic edota Errealeko jokalaria izan den arabarrik gogoratzen duzu? Peio Uralde. Peio bi taldeetan egon da, makina bat gol sartuz gainera.

Zer oroipen utzi zizun Alavesek? Garai zailak izan ziren. Taldea ez igotzeak porrota ekarri zuen. Hala ere, taldea oso ona zen.

Zer iruditzen zaizu gaur egungo Alaves, igoko al da? Egia esan, kanpotik baino ez dut ezagutzen, baina aurten ondo dabilela dirudi, ea play-off-ean suerterik duten.

Estatu espainoleko selekzioaren hamaikakoan noizbait egon zara? 15 minutu besterik ez baziren ere, orain bi urte izan zen nire estreinaldia.

Pasa den hilean Athletic eta Errealaren arteko euskal derbya izan zen. Oso norgehiagoka berezia, ezta? Niretzat denboraldiko partidurik politena da. Madrid edo Barcelona ere daude, baina ez da berdina. Giroa izugarria da.

Derbyren bat zure gogoan duzu? Bai. Joan den urtekoa. Lau negatibo geneuzkan soinean eta galtzen hasi ginen arren, zelaian utzi behar dena utzi, eta 2-1 irabazi genuen azkenean.

Azken urteetan bi talde euskaldunen arteko giroak txarrera egin du? Bai agian bai. Dena den aurten Atotxako norgehiagoka berezia izan da. Egoera bere onera dagoeneko itzuli dela uste dut.

Zer deritzozu euskal taldeetan atzerritarrak egoteari? Lehiaketak neurri hori hartzea behartu du. Hala eta guztiz ere, Athletic-ekoek bereziak izaten jarraitu nahi dugu.

Anoetako futbol zelaia hotzagoa izango da? Bai. Atotxan jendea oso gainean zegoen. Anoeta berriz, atletismo pista dela eta hotzagoa izango da.

Gasteizko gaua ezagutzen duzu? Gautxorria al zara? Je, je...Nik gauak Lezaman igaro behar izaten ditut. Hori bai, irtetzen naizenean, Gasteizetik izaten da, betiko laguntaldearekin.

Nortzuk agintzen dute Gasteizen, errealezaleek ala athleticzaleek? Nire ustez, Athleticzaleek. Halabaina, hemen bi muturrak daude. Athleticzale sutsuak ala bilbotar bat bera ere ikusi ezin dutenak.

Orain urte batzu Alavesen zeundenean, Athletic-i Kopa partidu batean irabazteko zorian egon zineten... Bai gogoratzen dut. Gasteizetik San Mamesera jende asko hurbildu zen... Erraza izango zela pentsatu zuten.

Arabian talde bat lehen mailan edukitzeko harrobia duzu?

Nire ustez bai. Baina hau horrela izan dadin, harrobia landu behar da, eta honetan Alaves oker ibili da.



Mendizorrotzako "General" herri-tarrak ez zion "Txingurri" deitzen. Ernesto Valverdek lehen mailan jokatzeko aukera Bartzelonatik jaso zuen eta han "Nou Camp"-eko zaletuek "Txingurri" ezizenez ezagutzen zuten "Euskobarsa"-ren partaidea izan zen, baina lehenago gasteiztarrak UEFA txapelketaren final batetan ere parte hartu zuen. Une hartan "Español" taldearen jokalaria zen eta entrenatzailea, guztientzat ezaguna den Javier Clemente. Egia esan, "Txingurri" guztiz aproposa egiten zaio Ernestori, Alavesen jokatzeko zuenetik, bere lanerako gogoia, trebetasuna eta gola egiteko erraztasuna begibistan zeuden. Hala eta guztiz ere, zurrumurruek diotenez, Sestaon egon zenean, Lezamako arduradunek ez zuten Athleticen jokatzeko gauza zenik ikusi. Cruyff-ek Barsatik alde egiten utzi, eta Athletic-ek bere akatsa konpondu zuen. Gaur egun, guztiok dakigun bezala, Athletic berriaren zutabea da Julen Gerrerorekin batera..


OPARIAK • KERAMIKA
ARTISAUTZA

AVDA GASTEIZ, 7 • Tfnoa: 14 19 27



MOBILIARIO **kide**
apaindura

Cercas Bajas, 27 • Tfnoa: 14 41 95 • 01008 - GASTEIZ-



AGENDA

2

ANTZERKIA
«LA PLAZA».
«Teatro de la Ribera» taldea.
Principal Antzokian 8,30etan.

KONTZERTUA
«Psallite» abesbatza
Villasuson 8etan

MUSIKALDIA Joaquin Sabina
Mendizorrotzan 9etan

3

ANTZERKIA
«LA PLAZA».
«Teatro de la Ribera» taldea.
Principal Antzokian 8,30etan
KONTZERTUA: Txistulari banda
eta Folklore Akademia.
Arriagako Gizarte Etxean, 7etan.

4

ANTZERKIA:
«HISTORIAS DE UN JARDIN»
«Teatro de la Ribera» taldea.
Principal Antzokian, 6etan.

5

KONTZERTUA:
Samaniego eta Alaitz abesbatzak.
Samaniegoko Eskolania.
«Requiem de Gabriel Fauré»
Carmen Elizan, 8,15etan.

18

ume eta gaztentxoentzako
ANTZERKIA: «A bombo y platillo»
Principal Antzokian, goizeko
12,30etan (euskaraz) eta
arratsaldeko 6,30etan (erdaraz)

19

PRUDENTZIO DEUNAREN
omenezko nobenarioa.
San Vicente Elizan 7,45etan

20

ZINEMA ez-profesionalsren
XXIV Zertamena. Inagurazioa
Kultur etxean, 8,15etan

21

PRUDENTZIO DEUNA.
PREGOIA
Principal Antzokian, 7,30etan
arratsaldeko 6,30etan

22

MAHAINGURUA: VillaSusoko
tertuliak
«XIX. mendeko konbultsioa (1813-
1875)»
VillaSuson, arratsaldeko 8etan.
ZARTZUELA: «KATIUSKA»
Manuel Iradier Abesbatza.
Principal Antzokian, 8etan.

23

KONTZERTUA: Euskadiko
Orkestra Sinfonikoa.
Principal Antzokian 7,45etan.
KONTZERTUA: Cantinela
Abesbatza.
Araba Kultur Aretoan, 8etan

24

ARABAKO SUKALDARITZA
TRADIZIONALA:
XXVIII. lehiaketa.
Foru Plazan, 5etan.
ARABAKO ERRIOXAKO ARDO
DASTAKETA. XXIV. lehiaketa.
Foru Plazan, 6etan
ZARTZUELA: «KATIUSKA»
Manuel Iradier Abesbatza.
Principal Antzokian, 8etan.

25

EUSKAL DANTZAK: Goizeko
12,30etan Probintzia plazan.
ZEZENKETA: Zezen Plazan
5etan.
ZARTZUELA: «KATIUSKA»
Manuel Iradier Abesbatza.
Principal Antzokian, 8etan.
JAIALDIA: «El Ultimo de la Fila»
Mendizorrotzako polikiroldegian
8etan.

26

KONTZERTUA: Iruñeako Pablo
Sarasate Orkestra.
Principal Antzokian 8etan.

27

PRUDENTZIO DEUNAREN
omenezko BEZPERAK:
San Vicente Elizan, 7etan.
RETRETA Plaza Berrian, 8etan.
Probintzia Plazan, 9etan.
DANTZALDIA: Goizaldeko
1,30etan Arka plazan.
«Montesblancos» taldea.

ARABAKO
ESPERANTO
ELKARTEA



Zapateria, 29 • Tfnoa: 22 05 70

ZAPATEGIA - ARTISAUTZA



Herreria, 86 • GASTEIZ

ALISAS
TABERNA

EZ DAGO
PINTXORIK

KUTXI • GASTEIZ



28

MEZA: SAN PRUDENTZIOko
BASILIKAN goizeko 11etan.
AURRESKUA, EUSKAL
DANTZAK ETA HERRI
KIROLAK: Armentia landeetan,
 goizeko 12etan
CROASSANTS ETA
TXOKOLATE DASTAKETA:
 Plaza Berrian 6etan

29

KONTZERTUA: Moskuko RTVko
 Abesbatza. Principal Antzokian,
 8etan.

30

KONTZERTUA: Euskadiko
 Orkestra Sinfonikoa.
 Principal Antzokian, 7,45etan.
DANTZALDIA: Gaueko 12etan
 Probintzia Plazan. 8,30etan.



POLTSIKOKO ANTZERKIA VI. ASTEA

ANTZERKIA Villa Suso Jauregian
 arratsaldeko 8etan

Apirilak 13: «Estrategia para dos jamones». Paco
 Obregon.

Apirilak 14: «Porca Miseria» Luciano Federico

Apirilak 15: «La muerte de Ivan Ilich» La Quimera
 de Plastico

Apirilak 16: «El Despertar» Selma Sorhegui

Apirilak 17: Luis Boyano

Apirilak 18: «Aria». Amparo Valle.

EUSKARAZKO MEZAK

Larunbatetan:

6,30etan El Pilar Elizan

7,30etan Erreparadoretan

Igandeetan:

11etan Estibalitzen (ele bietan)

11.30etan Jesus Langile Elizan

12etan Erreparadoretan

ERAKUSKETAK



Ur-biltegi zaharrean, Apirilaren 18a-arte. «Hiria eta
 Bizitza». Ekologia eta Ingurugiroa.

Olagibel Aretoan (Enparantza Berria) 18a arte.
 ADELAIDA HERRERO. Apirilaren 28tik aurrera,
 «Irakaskuntza Ertaina, 150. urtemuga»

Caruso Kafetegian (Enrike Eguren 9) «Komikigile
 haundiak», J. SANCHIS, CARPA, NIN, J. PALOP.

Kultur Etxean (Florida) 5tik 23a arte San
 Prudentziorako txartel erakusketa. Apirilaren 23tik
 Maiatzaren 8a arte «Prudentzio Deuna XXIV. argazki-
 lehiaketa»

Cordon Etxean. 17tik 30era. «Eskolarteko Komiki-
 lehiaketa»

CM2-en (Araba Jauregia, Herreria 24) 15tik Maiatzaren
 8a arte. BLANCA GAMICA. eskultura..

Trayecto Galerian (Ramiro de Maeztu 10). Apirilaren
 30a arte Erakusketa Kolektiboa. «Virusemia»

Amarika Aretoan, 18a arte, «Docupil». 22tik maiatzaren
 23a arte, «Hamaika Frantzian»

Luis de Ajuria Aretoan (General Alava 7) 2tik 15a arte.
 J. M. ALONSO. Grabatuak. 17tik 31a arte. Knörr.
 Eskultura kontemporanea.

San Prudentzio Aretoan (San Prudentzio 30) Miniatura
 eta maketen erakusketa.

Pajarita Aretoan. 2tik 15ra «Aintzinako grabatuen
 erakusketa. 17tik 30a arte BEGOÑA GARAIZABAL.
 Pintura.

Aitor Urdangarin Galerian (Florida 24), 14a arte
 CARLOS GARCIA. Oleo. 15tik 30a arte CESAR
 MAZQUIARAN. Teknika mistoa.

“UPELA” MOTRI

SAGARDOTEGIA • ZALDITOKIA

Tfnoa: 908-67 31 08 ALAIZA (Araba)



LARRUKI

Larruaren
 Artisautza

KANPOKO ARTISAUTZA, BITXIKERIAK

Kutxilleria, 26
 Tfnoa: 28 38 86

01001-GASTEIZ

KOADROAK
 MOLDURAK
 LAMINAK
 MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

PRUDENTZIO DEUNA ESTIBALIZKO AMA IV BERTSO SARIA

Finalderdia: Apirilak 2

Lekua: Amurrioko Kultur Etxea

Ordua: Arratsaldeko 8ak

Finala: Apirilak 25

Lekua: Gasteizko Floridako Kultur Etxea

Ordua: Goizeko 11ak


Babeslea: Arabako Foru Aldundia.
Kultura Saila.

Laguntzaileak: Euskal Herriko Bertsolari elkarteak
Aretako Kultur Etxea
Amurrioko Udala.

Antolatzailea: Arabako Bertsolari Eskolak.

Omendu nahirik Prudentzio Deuna
ta Estibalizko Ama
laugarren aldiz sariketa hau
hurbildu da guregana
Jorrailak hogeita bostean
gauzatuko dugu plana
bakar bakarrik geratzen zaigu
ondo egitea lana

Rikardo Gonzalez de Durana



Euskal
Kantuzaleen
Elkarteak

**ARABAKO
EUSKAL
KANTU
TXAPELKETA**



Arabako Haur Kantu Txapelketa antolatu berri da. Izena emateko epea Apirilaren erdialdera arte egongo da zabalik, horretan interesa duenak BAGARE Euskaltokian (Kutxileria 62-Behea) izena eman ahal izango duelarik.

Lehiaketarako epaimahaia euskal kultura eta musikaren inguruan aski ezagunak diren pertsonez osatua izango da.

Nahi bezalako musika laguntza eraman ahal izango du kantariak, baina beste ezeren gain kantua baloratuko dela jakinez.

Sariak lehenengo eta bigarrenentzat izango dira, eta beti ere bakarlarrietan, bikoteetan eta taldeetan. Ikusentzulegoak aukeraturikoarentzat ere sari bat izango da. Epaimahaiak erabakitzen duen bitartean euskal musikako ikuskizun batek ikusentzuleak alaituko ditu.

Parte hartzaile guztiei sari bana emango zaie oroigarri.

Bukatzeke, epaimahaikideek Arabako lehiaketa honetako lau kantaririk hoberenak aukeratu dituzte, EUSKAL HERRIKO KANTU TXAPELKETA parte hartzeko aukera izango dutelarik, Maiatzaren 23an Iruñean ospatuko den finalean, Arabako Ordezkaririk direlarik.

Chimbo Jatetxea

Cuchilleria, 57 • Tfnoa: 27 28 91
GASTEIZ

ANBOTO
TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA

Kutxilleria, 29 - Tfnoa. 25 00 93 - 01001 GASTEIZ

ILAR KREMA**Osagaiak (6 lagunentzat)**

- 200 gr. ilar
- Kipula bat
- Porru bat
- Salda edo ur litro bat
- 100 gr.gurin
- Gatza

Kipula eta porrua txikitu eta gurin pixkatekin biguntzen ipini lapiko batean. Ilarrak gehitu (hobe bezperatik uretan egon badira, batez ere freskoak izatekotan). Guzti honi ura eta gatza bota ondoren, irakuten utzi denbora luzean (bi inguru freskoak badira). Ondoren txinotik pasatu eta irakinaldi txiki bat eman ondo nahasteko. Nahi izanez gero gurin pixkat gehitu azken momentu honetan.

PIPER BETEAK**Osagaiak**

- Poteko piperrak (bi edo hiru pertsonako)
- Okela pikatua 250 gr. (hobe txerriki eta txahala nahastuta)
- Kipula eder bat
- Olio
- Bi arraultz
- Irin apur bat
- Bi katilu haragi salda

Zartagina sutan ipini olio pixkatekin. Bertara kipula erdia txiki-txiki eginda bota. Kipula egindakoan, haragia nahastu bertan mugituz, egin arte. Arraultz bat (gorringo eta zuringoa ondo nahastua) ere botako diogu dena masa bat egin dadin, gatz apur bat ahaztu gabe.

Goilara baten bidez, piperrak beteko ditugu. Hau egindakoan irina eta arraultzetan pasatu eta frijitu.

Saltsa egiteko, beste kipula erdia txikitu, oliotan bigundu eta haragi salda eta bi goilarakada irin gehitu. Irakin bat eman eta gero, piperren gainean bota txinotik pasatuz. Irakinaldi berri bat eman eta prest daude jateko.

MAMIA**Osagaiak (6 lagunentzat)**

- Litro bat ardi esne
- Bi limoi
- Azukrea
- Gatza

Inoiz probatu al duzu etxeko mamia? Goxoa, ezta? Hona hemen etxean mamia egiteko errezeta errez-errez bat.

Esnea irakiten ipini gatz pixka batekin. Ondoren, ontzietan banatu eta limoi zuku pixka bat gehitu ontzietara. Zukuak esne lodia eta sueroa bereiztuko ditu, mamia sortuz. Hau lortzen duzunean sueroa kendu.

Hoztutakoan, azukrea edo eztiarekin, primerako postrea duzue.



SUKALDE TXOKOTIK



ARTEPAN

Artisau

Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ



**JATETXEA
ERRETEGIA**

**OKELA ETA
ARRAIN
ERREAK**

Cantòn de San Fco. Javier, 4 • Tfnoa: 27 68 33 • 01001 GASTEIZ-



UN GASTEIZ 5.000 Etxetan



Eskuratu zurea!

GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



**Ondokoetan badago euskaraz
dakien langilerik**

A 12 - 1 EZK

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
ZERBITZU OROKORRAK	ARGIBIDEAK ETA HARRERATEGIA	Dato, 11	16 11 88	16 15 93
LURRALDE ANTOLAKUNTZA ETA INGURUGIROA	HIRI-HOBAKUNTZA (HIRITARREKIKO HARREMANAK)	Dato, 11	16 13 01	16 15 93
KULTURA		Machete plaza, z/g	16 12 75	16 12 77
O.K.U.S./DEMSAC	ADMINISTRAZIO-ATALA (OMIC)	Done Bikendi aldapa, z/g	16 12 40	16 12 51
HERRI-JARDUERA ETA LAN HARREMANETARAKO SAILA	EUSKARA	Espainia plaza, z/g	16 15 22	13 09 65
GIZARTE ONGIZATEA	ADMINISTRAZIO-ATALA	Espainia plaza, z/g	16 13 60	16 13 63
INFORMATIKA		Vera-Fajardo margolaria, 5	16 14 13	16 16 00
HEZKUNTZA	ARANBIZKARRAKO HAUR ESKOLA	José P. Ullibarri, z/g	28 16 35	
	EL PILARREKO HAUR ESKOLA	Caracas, 6	22 94 99	
	F.J. LANDABURU HAUR ESKOLA	F.J. Landaburu, z/g	28 35 45	
	HAURTZARO HAUR ESKOLA	Santa Maria kantoia, z/g	14 34 33	
	IZARRA-LA ESTRELLA HAUR ESKOLA	Astronomoak, z/g	28 44 95	
	OLARIZUKO HAUR ESKOLA	Dantzari plaza, 6	27 28 95	
	TXIMELETA HAUR ESKOLA	Ricardo Sacristán, z/g	22 46 34	
	SANTA LUZIAKO HAUR ESKOLA	Federico Baraibar, 17	28 82 25	
	TXAGORRITXUKO HAUR ESKOLA	Gasteiz hiribidea, 61	22 95 49	
	ZARAMAGAKO HAUR ESKOLA	Nafarroako erreg., 16-B	28 94 49	

